

LANGAI ZERBITZUA ONGINTZA PATRONATUAN

340 hernaniar ari dira lan bila 'Langai' zerbitzuan

■ Zerbitzuak bi urte daramazki eta 71 pertsoneri bilatu die lana ■ Orain, unibertsi-tatean ikasiak ez beste denek jo lezakete 'Langai'ra.



Ongintzak Traspakarreko etxe honetan ematen ditu Langairako formazio ikastaroak.

LANGAI zerbitzua INEMen tankerako zerbait da, baina, Eusko Jaurlaritzarena. Gehienera ere Graduatu eskolarra, REM edo FP1 duen jendea begira sortua da, lan formazioa eman eta lana bilatzen laguntzeko. Hernanin Langai zerbitzua Ongintzak daramaki eta zerbitzuaren bigarren urteurrenean, balorazioa eta zenbait datu eman ditu.

413 LAGUN LAN ESKE
Hernanin zerbitzu hau mar-txan jarri zenetik jende mogi-mendua haunditu egin da. Gaur egunean, larehundik gora (209 gizon eta 204 emakume) dira Langain izena emanda lanerako noiz deituko zai daudenak. Eta, ez hernaniarrak bakarrik; badira (80) beren herriko zerbitzua utzi eta hemengora jo dutenak ere.

71 LANPOSTU
Bi urteotan, Hernani eta inguruko 47 enpresetako 65 lan eskaintza bideratu ditu Langai; dena, 71 lanpostu.
Aurten arte, Langain ezin ziren apuntatu Graduatu eskolarra FP1 edo REM-etik aurre-ragoko titulua zutenak. Orain, berriz, unibertsitate mailako titulazioa ez duten beste guz-tiek ere libre dute izena ematea. □

Xalapartako Sagardo Lehiaketarako prest dago dena

■ Atzo itxi zen izen emateko epea ■ Datorren larunbatean Hernani, Astigarraga eta Urnietako 10 sagardogile izango dira.



Xalaparta elkartean bazkaria jartzen atzo eguerdian.

DATORREN larunbatean egingo da Xalaparta elkarteko VII Sagardo Lehiaketa. 10 sagardogile izango dira lehiaketan. Hernaniarrak zazpi: Akarregi, Alberro, Eizmendi, Altzueta, Elorrabi, Otsua-Enea eta Zelaia. Urnietatik Elutxe-ta eta Eula; eta Astigarra-gatik Oiarbide etorriko da.

Bestalde, Xalaparta elkartek bazkideak jakinaren gainean jartzen ditu 17:00etarako, soziedadeak libre egon beharko duela.

Santa Zezilia kontzertuak aste honetan

Asteazken, ostegun, larunbata eta igandean sei emanaldi izango dira.



Marta Zuñiga eta Anna Alemany piano aurrean.

MUSIKOEN patroia dela-eta, urtero izaten da kontzertu mor-doa Santa Zezilia inguruan. Aurtengoari Musika eskola publikoko neska-mutilen kontzertuak emango dio hasiera: azaroaren 22an, asteazkena, Sandiusterrin 18:00etan; egun berean Kantuz abesbatza kalez kale ibiliko da; 19:30etan.

PIANO KONTZERTUA OSTEAGUNEAN
Musika eskolak antolatuta, Marta Zuñiga eta Anna Alemany piano joleak arituko dira Sandiusterrin, arratsalde-

ko 19:00etan; Marta Zuñigak Hernanin hasi zuen Piano munduko bidea; gaur egun Bartzelonan ari dira biak goi mailako ikasketak burutzen.

HIRU KONTZERTU ASTEBURURAKO
Larunbatean, Kantuz abesbatza eta txistulariak, batera arituko dira Sandiusterrin, 20:00etan. Igandean, berriz, elizako koruak kantatuko du meza nagusian; Banda munizipalak kontzertua emango du udaletxeko arkupeetan eguerdiko ordubatean. □

Hernaniko mapa toponimiko berria aurkeztuko dute

■ Datorren ostegunean aurkeztuko dute, Biterin, 19:30etan.

Gabonetako kantu taldeak entsaioak hasiko ditu Ereñotzun

■ Azaroaren 24an, ostirala, hasiko dira Ikastola zaharrean, 20:30etan ■ Kantak aukeratu eta hitz-giteko bilera izango da.


Ipuin kontaketa liburutegian

■ Itziar Zubizarreta izango da kontalaria ■ Ostegunean bi saio izango dira Biterin: 17:30etan 3-4 urteko umeentzako eta 18:00etan 5-6 urtekoentzako.

■ 3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Hernanik 0-1 galdu zuen atzo Zubipen ...hamarren kontra

■ Durangarrek bigarren zatiko 46 garren minutuan sartu zuten gola ■ Hernanik ez zuen irabazteko meritu asko egin ■ Hurrena Baskoniaren aurka, kanpoan.



Hernaniko masajista Insaustiri txurnilloko kaskatekoa arintzen.

HERNANIKO ALINEAZIOA

Arkaitz, Egoitz, Eusko, Beñat, Plaza, Eneko, Igor, Barandiaran, Insausti, Iker, Lasa. Ordezkoak: Otxoa, Edu, Gonzalez, Aitor eta Duran

HERNANI INSTITUTUA Langabetuentzako mekanika ikastaroak gaur hasiko dira

TITULAZIORIK gabeko gazte langabetuentzat oinarriko ikastaroak daude Karmelo Labaka ikastetxean, hasi gaur eta apirilaren 27a bitartean. Helburua: gazteak lan mundurako egoki prestatzea. □

Gazteentzako neguko olinpiadak azaroaren 25ean

14-18 urte bitarteko gazteentzat neguko olinpiadak antolatu ditu Euskara Elkarteek Topaguneak. Datorren larunbatean Itsasondon izango dira herri askotako gazteekin. Bazkaria eta garraioa 500 Pta. Izena eman nahi duenak Dobera Euskara Elkartera deitu ☎ 943 332799. □

MUS TXAPELKETA Elur Txori-Gure Txoko Ur Mia-Peña Otaño finalaurrean, bihar

ELUR Txoriko Valero eta Imazek Gure Txokoko Arenal eta Valentinen kontra jokatuko dute partida batean. Bestean, Peña Otaño Arruti eta Sagarnak Urmiako Portugal eta Legarretaren kontra. Irabazleek finala azaroaren 23an jokatuko dute. □

■ WATERPOLOA Hernani lider dago Euskal Herriko Ligan

ATZO 8-5 irabazi zuten Eibarren kontra, eta nahiko erraz gainera. Beti jokatzen ez dutenek ere jokatu zuten atzokoan. Goleatzaileak: Maroñok 3, Gazteluk 1, Insaustik 1, Mendozak 2 eta Landetxek 1. Hernanik lautik lau irabazi ditu; tartean, bi onenei (Menditxo eta Askartza); orain, 12 punturekin aurrena doa, bakar-bakarrik. Datorren kontrarioa: UPNA. □



Hernaniko Waterpoloko jokalaria bat erasoan.

Kontuz mobila duzutenok!!

TELEFONO mugikorrean (11) 41455414 zenbakira deitzeko mezua jasoz gero, ez deitu! Eta Zure ornitzailak direla eta 0 edo 90 zenbakira deitzeko esanaz deitzen badute ere, ez deitu! Diru mordoia galduko duzu-eta.

Zenbaki hauek deituta SIM tarjetaren kodera sartzen dira estafatzaileak, berratu eta berri bat jartzeko. Horrela besteren bizkar egiten dituzte deiak. □

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Inglesaren Harria (Jauregi auzoan).

Zenbait datu:

- Diotenez, orain 178 urte Napoleonen tropek hildako soldadu ingles baten hilobiko harria da.

- Azpikaldean Latinezko hitz batzuk ditu.

- Auto batek jo eta pitzatu zuen 1987an.

- 1989an ingurua txukundu eta dagoen moduan jarri zuen udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Arantzadik eskatuta.

■ **Asmatu dutenak:** Joxe M^a Zelarain, *Putre*, Maddi Iradi, Denis Sorondo Marian Apezetxea, Asier Larrañaga eta Leyre Larrañaga, Maddi Iradi Iturrioz, Ander Altuna, Mia Altuna, Manuel Zumeta, Arbillé Zumeta, Bakartxo Azaldegia, Yurre Zumeta, Javi Gonzalez eta Roxario Pikabea.

■ **Saria:** Venta Berri jatetxean bi lagunentzako afaria eta kronikaren urteko bilduma (urte bukaera bitartean gehien asmatzen dituenak).

HERIOTZAK

Escolástica González Arroyo

Atzo hil zen 86 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur, astelehena, arratsaldeko zazpitan Juan Bataiatzailea Parrokian.

AGENDA

❖ **ERAKUSKETA**
Alberto Elosegiren argazkiak.

Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa Zumardi tabernan.

Arantxa Samsoren Marrazki erakusketa. Biterin 18:00-20:00.

❖ **HITZALDI-TAILERRAK**
Drogak eta adoleszenteak. (Gurasoentzat). Bihar, aste-artera, Biterin, 14:45 eta 19:15etan.

ZERBITZUAK

☎ **TELEFONOAK**

☎ Taxiak: 943 550093

☎ Udaltzaingoa: 943 333288

☎ DYA: 943 464622

☎ Anbulatorioa: 943 557750

☎ **FARMAZIAK**

☎ Egunez: Sagastiberri Urbietan, 7 ☎ 943552941

☎ Gaez: Sagastiberri Urbietan, 7 ☎ 943552941

☎ **ASTEARTEA**

☎ Egunez: Gomez-Justel Kale Nagusia, 15

☎ 943 554892

☎ Gaez: Gomez-Justel Kale Nagusia, 15

☎ 943 554892

☎ **ASTEAZKENA**

☎ Egunez: Bulnes Etxeberri

☎ 943 557738

☎ Gaez: Bulnes Etxeberri

☎ 943 557738

ASTEBURUKO EMAITZAK

■ FUTBOLA

3. maila (Mutirik)

Hernani 0-Durango 1

Emakumezkoen Liga:

Hernani 1 - San Ignacio 2

Gorengo maila (Mutirik)

Aloñamendi 2-Hernani 1

Gazteen liga nazionala:

Hernani 3 -Asti Leku 0

Gazteen Ohorezko Liga

Ordizia 3-Hernani 4

Kadeteen Ohorezko Liga

Hernani 1-Real Sociedad 3

Kadeteen 2.Maila

Tolosa 0-Hernani 0

Haurren Ohorezko Liga

Elgoibar 0-Hernani 3

■ ERUGBIA

1 Liga Nazionala (Mutirik)

Ordizia 16-Hernani 9

■ ESKUBALOA

2. Nazionala:

Hernani 25 -Galdakao 18

■ PELOTA

2. mailako lauterdio txapelketa:

Zabala 22- Esnal 10

■ WATERPOLOA

Euskal Herriko Liga

Hernani 8-Eibar 5



Laguntzaile:

Hernaniko Udala

Laguntzaile:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak